



LORE KOPLAK



Doinua:

*Negu partean mizpira
Hiru puntuko kopla*



Ixiar
Eizagirre
Kerejeta

Kale
hizkera

Maiteminduta **nagola**
borborka daukat **odola**
zergatik segi argia ordaintzen?
Zu zara nire **Iberdrola!**

Zu zaitut gailurra, **maite**
zure baietza **bitarte**
Everestera oxigenorik
gabe igoko **nintzake.**

Ausardia dut **bertute**
zure muxu baten **truke**
liztor asiatikoen erlautzan
sudurra sartuko **nuke.**

Egin behar bada **borroka**
ausarta naiz, bost **importa**
nik erraz hilko nuke zugatik
balea **txankletazoka.**

Zientziak frogatu **bezela**
jabetu gara **horrela**
aldaketa klimatikoaren
arrazoia zeu **zarela.**

Emaidazu **guraizea**
urra dezadan **haizea**
Eguzki banitz, ta zu llargi
ze maitasun **eclipsea.**

Etsitzean nago zinez
zugana heldu **ezinez**
zure begiak itsaso dira
ta nik igeri jakin ez!

Espaloian **zoazela**
banilla eta **kanela**
gero esango dute loreek
ibiltzen ez dakitela.

Horren guapo, hain **perfekto**
mister **nazioarteko...**
Esan zein duzun zure izena
Olentzerori **eskatzeko.**

Nola zaitudan hain **laket**
seguru esan **dezaket**
zu xagu ta ni katu bagina
libre utziko **zintuzket.**